



GASTEIZKO UDALAK ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK HIRU HAUR ESKOLA ITXI NAHI DITUZTE

Zerbitzu publikoen suntsitzeak ez du amaierarik. Azken asteetan Gasteizko hainbat ahotatik hiriko egitasmo desberdinek sortuko dituzten lanpostu berriak goraiatzan ari dira han eta hemen. Baina bitartean, atzeko atetik, zerbitzu publikoak ahultzen ari dira eta honekin bertako lanpostuak suntsitzen.

Oraingo honetan Gasteizko Udaletxeak egitasmo berria aurkeztu dio Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari, arrazoi ekonomikoak direla eta, Gasteizko hiru haur eskola isteko: El Pilar auzoan kokatuta dagoen Almudena Cid, Lakuako Txirrinbil eta Abetxuko auzoko Virgen Blanca, hain zuzen ere. Horrela, Gasteizen eskaintza betegabe dagoelako aitzakiarekin, eskaintza publikoaren%10ean jaitsi nahi dute. Abetxukoko Virgen Blancaren kasuan haurreskolaren itxiera oso larria da, erdi auzo erdi herri den honetan, 0-2 urte arteko eskaintza publiko bakarra desagertuko litzatekeelako. Eskola guzti hauetan familiak, ikasleak, langileak eta kalitatezko proiektu hezitzaileak daude martxan eta orain familia horiei irtenbide bat eskaini nahi zaie, beste haur eskola batzuetara bideratuz. Aldi berean, gutxienez 26 lanpostu galduko dira: 20 hezitzaileenak eta besteak Udaletxeko langileenak.

Egia baldin bada, 2012-2013 ikasturtean EAE osoan eta bereziki Araban matrikulazioa jeitsi dela, honen arrazoiak aztertu beharko genituzke polikiago. STEE-EILAS-ek uste du zerbitzuaren prezio garestiek, eskaintzen dituzten ordutegiek eta antolamenduari dagozkion beste aspektu batzuk eragin zuzena dutela jaitsiera horretan. Proposatutako murrizketarekin hurrengo ikasturtean familiak sistema publikotik kanpo geratzeko arriskua dago.

Arrazoi guzti hauengatik STEE-EILAS-ek gaitzetsi egiten du Gasteizko udalak eta Haurreskolak Partzuergoak hartu nahi duten erabaki hau eta atzera egiteko exijitzen du. Bere eskuretan dagoen guztia egingo du zerbitzu publikoa babesteko eta lanpostu gehiagorik galdu ez daitezen.

Gasteiz, 2013ko martxoak 12